

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat Europako dirulaguntzen bidez finantzatutako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baitzen) eta aurrekontua betetzeko indarreko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrerak onestea Iruñeak ahal du: Merkatuak eta Hiriko Merkataritza Guneak babesteko Planerako, guztira 1.029.120,00 euroko zenbatekoarekin, Europako dirulaguntzen bidez finantzatuak, xehetasun hauekin bat:

Gastuak		Finantzazioa (diru-sarrera)	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
11/43110/226990 Beste hainbat gastu	70.000,00 euro	20/49700 Europar Batasuneko dirulaguntza gastu arrunterako	70.000,00 euro
11/43110/227060 Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak	177.720,00 euro	20/49700 Europar Batasuneko dirulaguntza gastu arrunterako	177.720,00 euro
11/43110/449000 Transferentzia arruntak udal-sozietateei	25.000,00 euro	20/49700 Europar Batasuneko dirulaguntza gastu arrunterako	25.000,00 euro
11/43110/619000 Berrezarpen-inbertsioak azpiegituretan/erabilera publikoko ondasunetan	360.000,00 euro	20/79700 Europar Batasuneko dirulaguntza kapitalerako	360.000,00 euro
11/43110/629090 Beste ibilgetu materiala	120.000,00 euro	20/79700 Europar Batasuneko dirulaguntza kapitalerako	120.000,00 euro
11/43110/740000 Kapital-transferentzia udal-sozietateei	276.400,00 euro	20/79700 Europar Batasuneko dirulaguntza kapitalerako	276.400,00 euro

2.- Kreditu-sorrerak onestea Iruña askoz gehiago da: eremu turistikoetan merkataritza-jarduera indartzeko, guztira 784.000,00 euroko zenbatekoarekin, Europako dirulaguntzen bidez finantzatuak, xehetasun hauekin bat:

Gastuak		Finantzazioa (diru-sarrera)	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
11/43110/226990 Beste hainbat gastu	135.000,00 euro	20/49700 Europar Batasuneko dirulaguntza gastu arrunterako	135.000,00 euro
11/43110/227060 Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak	122.000,00 euro	20/49700 Europar Batasuneko dirulaguntza gastu arrunterako	122.000,00 euro
11/43110/619000 Berrezarpen-inbertsioak azpiegituretan/erabilera publikoko ondasunetan	377.000,00 euro	20/79700 Europar Batasuneko dirulaguntza kapitalerako	377.000,00 euro
11/43110/629090 Beste ibilgetu materiala	150.000,00 euro	20/79700 Europar Batasuneko dirulaguntza kapitalerako	150.000,00 euro

3.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betetzeko indarreko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.»